

Geoparkea

Euskal Kostaldea - Costa Vasca

# Flysch & Karst experience

Deba
Mutriku
Zumaia



Euskal Kostaldeko Geoparkea liburu moduko bat da, gure planetaren eta gizakiaren historiako hainbat kapitulu gordeak dituen lurralde bat, eta bidaia zoragarri baterako hamaika ate eskaintzen digu: denbora geologikoan zehar eta milaka urteko gure herri honen kulturan eta tradizioan barrena aurkikuntzazko bidaia bat egiteko aukera, hain zuzen. Euskal Kostaldeko Geoparkea Europako eta Munduko Geoparkeen Sareko kide da 2010az geroztik; UNESCOK babestua, mundu osoko 100dik gora lurraldek osatzen dute Sarea.



El Geoparque de la Costa Vasca, un territorio que atesora distintos capítulos de la historia del planeta y el ser humano, nos brinda un auténtico viaje de descubrimiento por el tiempo geológico y la cultura y tradición de un pueblo milenario. El Geoparque de la Costa Vasca es desde 2010 miembro de la Red Europea y Global de Geoparques auspiciada por la UNESCO, que cuenta actualmente con más de 100 territorios repartidos por todo el mundo.



Geoparkeko itsaslabarretan naturaren altxor paregabe bat dago gordeta: Lurraren historia geologikoaren azken 60 milioi urteak arroketan idatzita, geruzaz geruza hurrenez hurren. Itsasoaren higaduraren eraginez agerian geratuak, begien bistan utzi dizkigute, guk ikusteko moduan, Lurreko historian berrikien izan diren gertaera garrantzitsuenetako batzuk ulertzeko gakoak; besteak beste, dinosauroak desagertu zireneko garaia.

# Flysch









Los acantilados del geoparque esconden un singular tesoro natural: más de 60 millones de años de historia geológica escritos en sucesivos estratos rocosos que, a causa de la erosión del mar, han quedado al descubierto y muestran las claves para comprender algunos de los eventos más significativos de la historia reciente de la Tierra, como la gran extinción de los dinosaurios.



# Karst

Kostaldetik barrualdera joanda, kalitate handiko landa-paisaia zein baino zein ederragoz osatutako mosaiko bat ageri zaigu. Karstaren mundua da: kareharrizko mendiak, iraganean oso aspaldi itsaso tropikal baten hondoan sortu eta urak apurka-apurka modelatuak. Han-hemenka dauden kobazuloetako asko, gainera, gure arbasorik urrunenen bizileku izan ziren, eta ederki gorde dute, gaurdaino, haien jardunaren eta kezka kulturalen hamaika aztarna.








En el interior del territorio hallamos el mundo del Karst, un mosaico de paisajes rurales de alta calidad originados por el desgaste de la piedra caliza, formada en un pasado remoto bajo un mar tropical. Muchas de las cuevas de estas montañas fueron ocupadas por nuestros antepasados más lejanos, que dejaron en ellas vestigios de su actividad y sus inquietudes culturales.

Ondare etnografiko eta kultural bikaina dago Geoparkean, eta ondare arkitektonikoa ere garrantzi handikoa da, bai hiriguneetan bai landako herriguneetan, ugari baitira jauregi, eliza eta ermitak. Azpimarratzekoak dira, besteak beste, Mutrikuko hirigune historikoa eta Bentalekua museoa (herriak itsasoarekin izan duen harremana ikus daiteke), Debako Santa Maria eliza (euskal gotikoaren altxor zoragarria), eta Zumaiako San Pedro parrokia eta bertako erretaula (Monumentu Nazional izendatua).



# Kultura









El Geoparque cuenta con un importante patrimonio arquitectónico en sus núcleos urbanos y rurales, incluyendo palacios, iglesias y ermitas, así como un notable patrimonio etnográfico y cultural. Destacan el Casco histórico y el Museo Bentalekua de Mutriku, donde se muestra la relación de la villa con la mar, la iglesia de Santa María de Deba, auténtica joya del gótico vasco, y la Parroquia de San Pedro de Zumaia, con su retablo declarado Monumento Nacional.

Geoparkea ezagutzeko eta lurraldeaz gozatzeko bisitaldi gidatu ugari daude aukeran, era askotakoak, urte osoan. Flyscharen Ibilbidea, Karsteko Zaporeak eta bisitaldi kulturalak, horra aukeretako batzuk. Eta eskaintza osatze aldera, beste hainbat jarduera: surfa, kayaka eta urpekaritza, adibidez, eta bestalde, oinez edo mendiko bizikletaz egiteko hainbat ibilbide.



# Jarduerak
## actividades





Un amplio programa de visitas guiadas permite conocer y disfrutar el geoparque a lo largo de todo el año. La Ruta del Flysch, Los Sabores del Karst o las visitas culturales son algunas de las propuestas. Actividades como surf, kayak o submarinismo, junto con una amplia red de senderos y rutas BTT completan la oferta.





# Geoparkea

Euskal Kostaldea - Costa Vasca




**ZUMAIAKO TURISMO BULEGOA**
**OFICINA DE TURISMO DE ZUMAIA**

Kantauri plaza, 13 - 20750 **ZUMAIA**
✆ 943 14 33 96
turismoa@zumaia.net
**www.geozumaia.net**

**DEBAKO TURISMO BULEGOA**
**OFICINA DE TURISMO DE DEBA**

Ifar kalea, 4 - 20820 **DEBA**
✆ 943 19 24 52
turismoa@deba.net
**www.deba.net**

**MUTRIKUKO TURISMO BULEGOA**
**OFICINA DE TURISMO DE MUTRIKU**

Txurruka plaza, z/g - 20830 **MUTRIKU**
✆ 943 60 33 78
turismo@mutriku.net
**www.mutriku.net**

**EZAGUTZA ETXEAK**
**CENTROS DE INTERPRETACIÓN**

Algorri (Zumaia)
943 143 100 • info@algorri.eu
www.algorri.eu

Nautilus (Mutriku)
943 603 259 • nautilus@mutriku.net
www.mutriku.net/nautilus

Geoparkeko Txokoa (Deba)
943 192 452 • turismoa@deba.net
www.deba.net

**ON-LINE EROSKETA**
**COMPRA ON-LINE**

**BISITA GIDATUAK**
**VISITAS GUIADAS**

**www.geoparkea.com**

@geoparkea

facebook.com/Geoparkea

Geoparkea TV

Argazkiak/Fotografías: Javier Carballo, Luis Llavori, Gorka Zabaleta, David Aprea, Alex Turrillas, Jon Llordes, Víctor Manuel Pizarro.

European Geoparks

Global Geoparks Network

Turismo Gipuzkoa

EUSKADI BASQUE COUNTRY

2014ko azaroa - noviembre 2014